

# PUBLIZITATEA



## LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILARAKO SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

**Belén Mellado**

*2012ko urtarrilean berrikusia*

## Lan-eskema

**Irakasgaia:** NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA

**Gaia:** Publizitatea

**Maila:** Lehen Hezkuntzako 4. maila

**Saio kopurua:** 6-8 saio

### Proposamenaren testuingurua

Publizitatea gaitzat hartuta, ikasleek errespetuzko kontsumo-ohiturak errazago garatzea nahi dugu; eta horretarako, bitarteko hauek izango ditugu: hausnarketa, informazioa eta jardueretara igarotzeko jarraibideak.

Bereziki eskola eremuan jarriko dugu arreta, ikasleek bertan eskuratuko baitituzte bizi guztirako izango dituzten ohitura eta balio asko. Badakigu familian hartutako heziketa izango dutela erabakigarriena, baina ziur eskolan ere lan handia egin dezakegula.

Horrela, bada, oso garrantzitsua da ikasleak kontsumo kontuetan arduraz eta kritikoki jokatzera bultzatzea ume-umetatik: har dezatela bizi-kalitateari lotutako heziketa, eta izan dezala isla eguneroko ekintzetan.

Kontu horiek guztiak jorrazteko asmoz, ohiko bizitzan aplikatzeko moduko ariketa erabilgarriak proposatzen ditugu.

### Landuko diren oinarrizko gaitasunak

- Herritartasunerako gaitasuna (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. jarduerak)
  - Ikasten ikasteko gaitasuna (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. jarduerak)
  - Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. jarduerak)
  - Matematikarako gaitasuna (6. eta 7. jarduerak)
  - Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. jarduerak)
  - Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. jarduerak)
- Giza eta arte kulturarako gaitasuna (5. eta 6. jarduera)

**Helburu didaktikoak:**

- Publizitatearen barruan, informazioa eta konbentzitu nahia bereizten ikastea.
- Publizitate-baliabideen ingurumaria ezagutzea.
- Gizarteak dituen beharrak betetzeko, mass-mediak zer eskaintzen duten jakitea eta horien gainean hausnarketa egitea.
- Publizitatearen ezaugarriak aztertzea.
- Produktu batzuen arteko ezberdintasunak zerrendatzea.
- Kontsumitzerakoan, bete beharreko jarraibideak ezagutzea.
- Kontsumitzaileek eta erabiltzaileek hautaketa arduratsuagoak eta kritikoagoak egitea.

**Edukiak:**

- Publizitatea, kontsumo-gizartearen zerbitzura dagoen tresna.
- Publizitatearen elementuak: pertsonaiak, koloreak, markak, logotipoak...
- Kontsumoaren ondorioak.
- Gure bizimoduan, nola kontsumitzen dugun.

**Jardueren sekuentzia:****Planifikatzea**

- 1. jarduera: Zer dakigu gai honi buruz? Ikasleen aurreiritziak ateratzea, beren jakintza-maila baloratzea eta irakasleak dituen helburuak identifikatzea.
- 7. jarduera: Zer kontsumitzen dut? Publizitatea aztertzeko ardura guztiona da.

**Burutzea**

- Lanaren garapena: publizitateari buruzko gogoeta eta azterketa egitea. Informazioa lortzea publizitatean azaltzen diren produktuen atzean zer dagoen jakiteko (2., 3., 4., 5., 6. eta 7. jarduera)
- Taldeko lana eta bakarkako lana.
- Publizitatea modu egokian ulertzeko beharrezkoak diren baliabideez jabetzea.

**Erabiltzea**

- 8. saioa: lortutako informazioa aplikatzea.

## **Ebaluazioa**

### **Adierazleak**

- Ea publizitatearen elementuak identifikatzen dituen: koloreak, pertsona(ia)k, markak...
- Ea publizitatea identifikatzen duen kontsumo-gizartearen zerbitzura dagoen tresna gisa.
- Ea publizitatearen informazioa harrapatzen duen.
- Ea konturatzen den marka jakinetako produktuak aukeratzeak ez gaituela hobeak egiten.
- Ea lortzen duen produktuaren izena eta markarena ez nahastea.
- Ea publizitate-kontsumoak dakartzan ondorioetako batzuk identifikatzen dituen.

### **Tresnak**

- Hasierako ebaluazioa (1. jarduera).
- Autoebaluazioa.
- Ikasleei egindako behaketak.

## LANERAKO PREST!!!

Dakizuenek, gauza askoren publizitatea egiten da edonon, baina, batez ere, telebistan. Gainera, telebistan, garai eta ordu jakin batzuetan, publizitate gehiago eta bereziagoa egiten dute. Ziur asko, noizbait konturatuko zineten horretaz.

Gai honetan, aukera izango duzue hori guztia aztertzeko eta kontsumitzaile arduratsuak izateko.



### PUBLIZITATEA AZTERTUTA, KONTSUMITZAILE ARDURATSUA IZANGO NAIZI!

Orain, jo eta ke lanera! Hona hemen, egin beharrekoak:

#### 1. jarduera: LANA PRESTATU

Lanaren atal honetan, publizitateari buruz zer jakin nahi duzuen eta, gaia lantzeko, zer urrats emango duzuen zehaztu behar duzue. Gainera, gaiari buruz zenbat dakizuen hausnartu beharko duzue. Horretarako, erantzun galdera hauek:

- Zer dakizue publizitateari buruz?
- Publizitatea baliagarria da?
- Zein da publizitatearen helburua?
- Zer da publizitate-iragarki bat?
- Benetan hainbeste produktu behar ditugu zoriontsu izateko?

**1.1. ariketa: Publizitatearen aurrean**

Idatzi, bakoitzak bere koadernoan, publizitateari buruz zer jakin nahi duzuen eta gaia jorrazteko zer egingo duzuen. Gero, talde txikietan jarri eta bateratu ideia guztiak. Kontuan hartu ideiak ez direla errepikatu behar.



ZER JAKIN NAHI DUGU PUBLIZITATEARI BURUZ?


- ...
- ...
- ...
- ...
- ...

ZER EGINGO DUGU GAIA LANTZEKO?

- ...
- ...
- ...
- ...
- ...

1.2.ariketa

Eskema bat emango dizuet, ea zuek holako ideiak atera dituzuen.



— Zer lortu nahi dugu gai honekin?

**1.3. ariketa**

Azkenik, gaia lantzen hasi aurretik, publizitateari buruz zer dakizuen aztertuko duzue. Horretarako, bakarka, beheko taula bete behar duzue: *bai* edo *ez* idatzi. Gaia lantzen bukatzen dugunean, berriz egingo duzue, gehiago ikasi duzuen ala ez jakiteko.

<b>PUBLIZITATEA ETA KONTSUMITZAILE ARDURATSUA</b>	
<b>Publizitatea gauza baten gaineko informazioa emateko tresna baino ez da.</b>	
<b>Iragarkiak ondo ulertzen ditut.</b>	
<b>Badakit iragarki bat egiten.</b>	
<b>Iragarkiak egiazkoak edo fikziozkoak izan daitezke.</b>	
<b>Premiazko gauzak baino ez ditut erosten.</b>	



## 2. jarduera: IRAGARKIEI BURUZKO INFORMAZIOA BILDU

Jarduera honetan, iragarkiei buruzko informazioa bildu eta gordeko duzue.

### 2.1. ariketa

Hasteko, gaiari buruzko informazioa bilduko duzue: zer da publizitatea?, zer dira iragarkiak?, nola egiten dira?, zer motatako bitartekoak erabiltzen dira?...

Talde txikitan jarrita, Internet erabili eta web-orri batzuetara jo dezakezue informazioa osatzeko:

Publizitatea baliagarria da kontsumitzaileak produktu bat ezagutzeko; baita horren ezaugarriak ere.

Publizitatearen helburu nagusia informatzea da; baina, gaur egun, pertsuaditzea ere bada.

Publizitatea egiteko hainbat bide erabiltzen dira, hala nola:

- Telebista
- Irratia
- Egunkariak
- Aldizkariak
- Internet
- Propaganda
- Gure jantziak
- ...

Proiektu honetan, goiko galderei erantzun beharko diezue. Gero, ikasi, landu eta sortu duzuenari buruz hitz egingo duzue. Eta biltzen duzuen informazioa zabaltzeko:

- Horma-irudiak egin.
- Eskolako irratia erabili iragarki batzuk emititzeko.
- Grabazio horiek ikastetxeko blogean jar ditzakezue ikusgai: publizitateari buruzko informazioa jaso nahi duen edozeinek asko ikasiko du!

## 2.2. ariketa

Gaur egun, iragarkien bitartez, produktuak saltzeaz gain, kontu ukiezinez ere hitz egiten digute: familia, maitasuna, edertasuna... Sentsazioen eta sentimenduen bitartez saltzen digute bizimodua.

- Bila itzazue hiztegia honako hitzen esanahiak:
  - Maitasuna
  - Edertasuna
  - Sentsazioa
  - Sentimendua
- Orain, aurki ezazue hitz horietako bakoitzarekin lotzeko moduko iragarki bat. Kontuan hartu publizitate-etxeetakoek zer erabiltzen duten halako loturak egiteko: esaldi erakargarriak, modako musika, kolore biziak, logotipoak, pertsonaia garrantzitsuak...
- Jar zaitezte hiruko taldeetan eta aukera itzazue telebistan, Interneten, aldizkarietan... ikusi dituzuen hiruna iragarki. Ondoren, iragarkiok marraztu edota moztu eta itsatsi. Jarraian, idatzi zer erabiltzen duten iragarki bakoitzean: zer kolore, zer mezu, zer pertsonaia, zer musika...
- Kopiatu beheko taula –tamaina handiagoan– orri batean edo kartoi mehe batean, eta bete datuekin.

IRAGARKIA	PRODUKTUA	KOLOREAK	MEZUA	PERTSONAIK	MUSIKA	LOGOTIPOA MARKA

### 2.3. ariketa

Aukeratu, hiru iragarkien artean, gehien gustatzen zaizuenena, eta atera ondorioak.

1. Zergatik aukeratu duzue iragarki hori?
2. Zer kolore erabiltzen ditu, eta zertarako erabiltzen dituela uste duzu?
3. Zer mezu ematen digu iragarkiak? Zer saldu nahi digute: iragartzen duten produktua bakarrik?
4. Zer pertsonaia ageri dira iragarkian? Zergatik aukeratu dituzte pertsonaia horiek?
5. Iragarkiaren musika zuen gustukoa da?
6. Markaren logotipoa ikusita, jakingo zenukete produktua zein den esaten?
7. Idatz ezazue, labur, zer ondorio ateratzen duzuen.

### 2.4. ariketa

Bateratze-lana

Jarduera honi azkena emateko, lehenik, talde bakoitzak aurreko ariketan ateratako ondorioak azalduko ditu gelakideen aurrean; eta, bigarrenik, iragarki bat aukeratu duzue gelakide guztion artean, eta zer helburu dituen azaldu.

### 3. jarduera: IRAGARKIETAKO EDO PUBLIZITATEKO PERTSONAIK

#### 3.1. ariketa. Pertsonaien araberako iragarkia



Danoneren **Danet natillak** lau bazterretatik gozatu ahal dituzu.

**Danet Danone, gusturako prest.**

- Errepikatuko dugu?
- Bai, noski!, % 85 esnea direlako, eta koipea % 3,5 baino ez. Baso bat esne beste.
- **Danet**, txapeldunen gustukoak.

Ondo begiratu goiko iragarkiari, eta arretaz irakurri ematen duen informazioa.

- Irakurtzen ari zinela, zer pentsatu duzu?
- Zer produktu saldu nahi digute?
- Nola saldu nahi dute?
- Nortzuk agertzen dira iragarkian? Zergatik erabiltzen dituzte pertsonaia horiek?
- Zer informazio ematen digu iragarkiak?
- Nola saltzen digute produktua? Zein da mezua?
- Nori bidali nahi diote informazioa?
- Pentsatu eta eman arrazoiak: zer ondorio atera dezakegu iragarkiak ematen digun informaziotik (irudia eta mezua)?





### 3.2. ariketa. IKERLARIEN LANA: informazio bila goaz



Joan, taldeka, iragarkiko produktua erostera (*Danet* edo antzekoren bat) denda desberdinetara. Gero, aztertu informazioa eta alderatu iragarkikoarekin.

- Zer informazio ematen digute kontsumitzaileoi elikagaiaren ezaugarriak ezagutzeko? Jaso itzazue datuak beheko taulan.

Produktu mota: zer da?	
Osagaiak: zein dira?	
Kaloriak: zenbat ditu?	
Koipeak: zenbat ditu eta zein dira?	
Azukrerik badu?	
Zenbat balio du produktuak?	
Besterik?	

Bat datoz iragarkiak dioena eta ontziak dakarren informazioa? Zertan ez datoz bat?

### 3.3. ariketa



Begiratu iragarkiari, arreta berezia jarri irudiak ematen duen informazioan, eta erantzun:

- Zer produktu saldu nahi digute?
- Nor agertzen da iragarkian? Zergatik?
- Nola saldu nahi digute? (Pertsuasioa)
- Nori bidali nahi diote informazioa?

### 3.4. ariketa. IRAGARKIAK ALDERATZEN



#### 1. IDATZI IRAGARKI BOK DITUZTEN 5 DESBERDINTASUN

---

---

---

---

---

#### 2. IDATZI IRAGARKI BOK DITUZTEN 5 BERDINTASUN

---

---

---

---

---




#### 4. jarduera: IRAGARKIEN EDO PUBLIZITATEAREN JASOTZAILEA

##### 4.1. ariketa. Publizitatearen jasotzailea

Begiratu ondorengo iragarkiei, eta irakurri ematen dizueten informazioa.

## Barbie printzesa



**Kolorezko metxak, modako txirikordak eta orrazkera ugari egin ditzakezu. Denetariko osagarriak: orrazi bereziak, koletero edo mototsekoak, ilerako ziriak...**

**Printzesa: oso hunkigarria da dantzara gonbidatua izatea; bertan, afaldu eta dantzatu egingo duzu printzeekin.**

## YMG MOTORRA



**6V-ko bateriaz dabil.**

**Azeleragailu eta balazta elektrikoak.**

**Bateria kargatzeko tresna barne.**

**Motokrosa egin dezakezu.**



**JOSTAILUEN PROPAGANDA ADITU, ETA GERO ERANTZUN.**

**4.2. ariketa. Baloreak**

- Iragarki biak dira neska-mutilentzat, ala bata neskentzat eta bestea mutilentzat? Zein da norentzat? Zergatik?

---

---

---

---

- Zergatik uste duzu agertzen direla *printzesa* eta *printze* hitzak?

---

---

---

---

- Nondik ibili ahal izango zara motorraz: mendietatik, harkaitzetatik, kaletik? Bakarrik ibili ahal izango zara?

---

---

---

---

- Idatz ezazu zein diren, zure ustez, aurreko iragarki bietan egiazko kontuak eta zein gezurrezkoak.

Egiak

Gezurak

<hr/>	<hr/>
<hr/>	<hr/>
<hr/>	<hr/>

### 4.3. ariketa. Iragarkien arabera, nolakoak gara?

Taldean hitz egin ondoren, lehenik arbelean eta gero orrian idatziko duzue aurreko iragarki bakoitzak zer adierazten duen. Hemen behean, hitz batzuk proposatzen dizkizuet (baten bat ezagutzen ez baduzue, hiztegia erabili).

- ziurrak
- energiaz beteak
- langileak
- okerrak
- arduratsuak
- itxura polita
- garbia
- bihurriak
- lasaiak
- arduragabekoak
- ...

a.- Nolakoak izan behar dute neskek?

---



---



---



---

b.- Nolakoak izan behar dute mutilek?

---



---



---



---

– Zertan zaudete ados? Zertan ez? Hitz egin, lehenengo, talde txikian; gero, talde osoan.

Ados

Ados ez

<hr/>	<hr/>
<hr/>	<hr/>
<hr/>	<hr/>

## 5. jarduera: LILURATU ZAITEZ MARKA BATEKIN

### 5.1. ariketa. Markak



Jo! Nola esango diot AITA, MARKArik ez badu erabiltzen?

SPINET 06

Egin ezazu galdeketa gelakideen artean, eta osatu beheko taula. Lan hau binaka egitekoa da: batek galdetu, eta besteak apuntatu. Ados jarri behar duzue, eta honako urratsei jarraitu:

- Egin gelakideen zerrenda. Alfabetikoki ordenatu, abizenak kontuan hartuta.
- Pentsatu nori egingo diozuen galdera.
- Adostu zer galdera egin, eta paper batean apuntatu erantzunak.
- Bete ezazue taula.
- Egin marrak batetik bestera, baina ERREGELA erabiliz.

Gelakidearen izen-abizenak	Jantzi mota	Marka	Prezioa	Non erosia	Non dago denda hori?

Erantzun hurrengo galdereri taulako datuak erabiliz:

Markei begira:

- Zein da erabilgarriena: marka duena ala marka gabekoa?
- Zein da garestiagoa: marka duena ala marka gabekoa?
- Non erosi behar dira marka horiek?

**Egin itzazue esaldiak jasotako datuak erabilia**

Gelako neskek (jantzia) ..... erabiltzen dute.

Gelako mutilek (jantzia) ..... erabiltzen dute.

Gelako neskek (oinetakoa) ..... erabiltzen dute.

Gelako mutilek (oinetakoa) ..... erabiltzen dute.

– Zer marka atera da gehien? Berbera da mutilentzat zein neskentzat?

## 5.2. ariketa. Logotipoak

**LOGOTIPOA** edo **MARKA** bakarrik agertzea produktua gogoratzeko oso modu zuzen eta sinplea izan daiteke: balio erantsia ematen dio produktuari, eta produktuak bera bigarren mailan gera daiteke.



Goiko logotipoak ezagutzen dituzu? Azaldu bakoitzak zer dakarren.

LOGOTIPOA	MEZUA	MARKA	PRODUKTUA	PREZIOA	KALITATEA
	"Just do it"	Nike	Zapatilak		

—Esan honako esaldi honekin ados zauden ala ez:

Marka jakin bat duen produktua aukeratzea **GIZARTE IDENTIFIKAZIORAKO MODU** bat da; kasu horretan, publizitatearen eraginak egin du bere lana.

—Markak erabiltzen badituzue, bete ezazue taula. Gero, atera ondorioak.

<b>Izen-abizenak</b>	<b>Adina</b>	<b>Marka</b>	<b>Halakoa naiz</b>
Jon Asteasu	9 urte	Nike	Tenis zalea



6. jarduera: KOLOREEN BIDEZ, SENTSAZIOAK SORTUKO DITUZTE GUREGAN.



**POZA, DINAMISMOA**

**DINAMISMOA, KEMENA, ERAKARGARRITASUNA**

**LASAITASUNA, FRESKOTASUNA, OREKA**

**ARGITASUNA, FRESKOTASUNA, LASAITASUNA**

**MISTERIOA, DOTORETASUNA**




**6.1. ariketa. Inkestak egingo ditugu.**

—Egin galdera hauek zuen ikastetxeko irakasle guztiei:

- Zein da zure autoaren marka?
- Zer koloretakoa da?
- Kolorea dela-eta gehiago ordaindu zenuen?
- Zergatik aukeratu zenuen kolore hori?

-Ondoren, egizue grafiko bat bildutako datuekin:

**Marka**



**Koloreak**






**6.3. ariketa. Inkestak egingo ditugu.**

—Erantzun honako galderoi (zuen gurasoei galdetuta):

- Zein da zuen autoaren marka?
- Zer koloretakoa da?
- Koloreagatik, gehiago ordaindu zenuten?
- Zergatik aukeratu zenuten kolore hori?

Ondoren, egizue grafiko bat bildutako datuekin:

**Marka**



**Koloreak**



7. jarduera: ZER KONTSUMITZEN DUT?



kerlariak

# GURE JANTZIAK


## LANEAN ARITU



-Ikastetxean:



Begiratu zer kamiseta-marka erabiltzen dituzuen ikasgelako eta ikastetxeko guztiok. Gero, bete grafikoa.

Ikasle  
kopurua



Markak	Rip curl	Roxi Quick	Nike	Silver

Orain, berriz, desberdindu zeintzuk erabiltzen dituzten neskek eta zeintzuk mutilak.



**-Dendetan:**

Zer marka saltzen dituzte gehien? Kotsultatu beren prezioak eta non fabrikatzen dituzten.

Marka	Prezioa	Herrialdea



## 7.2. ariketa. Idazlana.

Erreparatu argazkiei, eta idatzi zer dakarkizueten burura.



-Orain, aldiz, pentsatu eta erantzun:

1.- Zenbat urterekin hasten dira lanean herrialde horietako haurrak?

2.- Zertan aritzen dira lanean?

3.- Zenbat lan ordu egiten ote dituzte egunean?

4.- Zenbat irabaziko ote dute?

5.- Zergatik egingo ote dute lan?

6.- Zer ezin izango ote dute egin lanera joateagatik?

### 7.3. ariketa. GEOGRAFIA LANA

#### HERRIALDEA

Aztertu dituzuen zapatila-marka gehienak Asiako zenbait herrialdetan (Korea, Tailandia, Filipinak, Taiwan,...) fabrikatzen dituzte, langileei ordaintzen dizkieten soldatak oso txikiak direlako.



-Bilatu itzazue aipatutako herrialdeak atlas baten, eta mapan seinalatu.

-Azter ezazue zein diren herrialde bakoitzeko hizkuntza, biztanle kopurua, txanpona eta klima.

HERRIALDEA	HIZKUNTZA	BIZTANLEAK	TXANPONA	KLIMA



**8. jarduera . ONDORIOAK**

-Hainbat produktu aztertu eta alderatu.

	Marka / Prezioa	Marka gabea / Prezioa
Zapatilak		
Prakak		
Txandalak		
Koloniak		
Kamisetak		

Bete itzazue esaldi hauek konparaketa egin eta gero:

Markako produktuen prezioak ..... dira.

Markako produktuen kalitatea ..... da.

Zuen ahalmen eta premietara gehien egokitzen den produktua erosten duzue?

**ONDORIOAK ATERA**

Taldeko elkarrizketa: Zer egin behar duzue produktu bat erosi baino lehenago?